


IA NOR DAN BIZKORAGUA

I



Neu anka baten gañian zufuntzen nok txirikilan.

II




Ba neu buztanaren puntan jañten nok ařapaladan.

ASTAKILO'REN GAUZEAK



Geure Astakilo ospetsuba, ixontzi-arazuetan sařtu da, ta otoz-otuan aberasturik, tařanta bat erostia otu yako. Eta of dua bitxabaletik ziař, autsa ataraten... eta *animali* gaxuak ilten.



Baņa saneuři karuegijak eskatzen dautsoez ildako egazti bakotxagařik eta Astakilo'ri asmo burutsuba otu yako. Taf-antan bestan egazti-mota gustijetarikuak sařtu ta ildakuen ordez beste bat emon eta kifu. Itxura bařegaři darua, baņa eztau iřnok atzipetuko.

¡Bekaitz gaiztoa!

¿Zeu zerala-ta, idazkörtza ařtu?
¿Zeu aitatzeko zerbait nekatu?

Uste ori det;
bañan ez, řori ez!, zure goralbenez,
baizik txit gogořki edo zure kaltez
iřola al ba-det;
ematen dirazu amuřu bakařik...
gofotatzen zaitut... zu destain egiřik
idatzi nai-det.

Zugatik aberatsa txiro izaten da,
zugatik txiruak efukari dira;
zoritxařeko,
zurekin bizi dan notin gizajoa,
inpernu goriya bere kolkoa;
ez du idoroko
iřoiz, ez iřola, ez ezertan onik,
zukin ez dalako atsedeen-gentzarik
řguda aizelako!

Zureztat ez dago egite zuzenik,
ez dezu nai ikusi txarkeria baizik,
zital gaiztoa...
besteren pozakin zera saminduten,
besten saminařin bai-zera poztutzen;
guzi-naikoa,
ez da ondasunik ez řoritasunik
zeu-gose-gosia aseko duanik,
řiriņa galdua!

Nastutzen dituzu sendi ta eřiak,
baita ixuri-erain malko ugariak;
ludi jauntxua,
zera ainbat oġenen ituři burua,
zera ainbat ořazzen zegaiti erua.
Zuk ogendua
gizadia dago makuř ta gezuřez...
řut!... řiguingařia! řdestain aut biotzez
bekaitz gaiztua!

TENE.

Ez esan uste-dokan erdiya baņo.
Ez egin gero edestu daiķiana baņo geyago.
Eure arazorik ez egik atzeratu biař-biařezķua danian baņo.
Eta ez az damutuko.